

Baso Eskolak eta gure
inguruneko natura

Haurtzaroan naturan bertan ikastea oso onuragarria da osasunari begira, eta, horrez gain, gaitasun psikomotorrak zein kognitiboak ere garatzen dira ikuspegi holistikotik.

"Eskolarik onena zuhaitzaren gerizpea da"
Rosa Sensat



Oso garrantzitsua da naturan bertan ikastea

Gure bizitzako lehenengo urteetan, natura jolas-parke handia da, eta jolastuz ikasten dugu bertan. Gainera, haurtzaroan ingurune naturalarekin etengabeko harremana edukitzea oso onuragarria da ikaskuntzari eta norberaren garapenari begira:

**Empatia, ikasteko
motibazioa
eta jakin-mina
esnarazten
ditu**

**Arintasuna
eta psikomotrizitatea
sustatzen ditu**

**Estimuluak
suspertzen ditu.
Natura bera
zentzumenetarako
erakusleikoa da**

**Estresa
murrizten du
eta lasaitzen
laguntzen du.**

Ingurune naturala arakatzea

Hautzaroan geure ingurunea zentzumenen bidez ezagutzea oso ona da garapen fisiko, psikiko eta emozionalari begira. Entzun, ikusi eta sentitzen duguna berez, era naturalean ikasteko dugun lehenengo modua da. Horrela, inguruko mundua ezagutzen eta ulertzen hasten gara.

Neska-mutilentzat, **ikertzeko edo saiakuntzak egiteko** lekua da natura, eta, horren bidez, euren trebetasunak, gaitasunak eta kezkek sustatzen dituzte.

Naturarekin harremanetan egotea oso lagungarria da **gaitasun psikomotorra zein motorra** modu natural bezain osasungarrian garatzeko, **sistema immunea indartzeko** eta zenbait gaixotasun prebenitzeko; esate baterako, loditasuna edo estresa.


Jokoari eta dibertsioari esker, errazago ikasten da: matematika bakunenak nahiz prozesu natural konplexuak; hostoen fotosintesia edo polinizazioa, adibidez. Bizian oinarritutako funtsezko balioen bidez heztea da helburua.

"Jakintza orok pertzepzioetan du jatorria".
Leonardo Da Vinci.



Natura, jolasgela handiena.

Basoa, ibaia, hondartza..., baita eskolatik hurbil dagoen parkea ere.



Naturako soinuak



Euriaren soinua, errekaen jarioarena, haizeak kulunkatutako hostoena, itsasoko olatuena, hegaztien kantuarena, zapal dutako adarrarena... neska-mutilen entzumenaren oroimenean geratzen da.

Horrez gain, soinu natural atseginak entzutea onuragarria da osasunerako, lasaigarriak direnez pertsonen eta animalien estuasun-maila murrizten dutelako.

Bazenekien **soinu-paisaia** lasaigarriez gozatzeko aukera eskaintzen dutela zenbait **webgunetan?**

Arazoak konpontzeko hegazti-kantuak

SEO BirdLife eta EFEk garatutako **FOCUS Natura** Proiektuan, TDAHko (Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmenduko) arazoak dituzten gazteekin lan egin dute. Natura 2000 Sareko soinu naturalen bidez egindako tailerretan kontzentrazioa hobetzea da helburua.

Onura horiek premia duten guztiengana iritsi daitezten, Natura 2000 Sareko soinu-paisaia lasaigarrien webgunea sortu da.

Zer da natura-defizitaren nahasmendua?

Richard Louv kazetariak sortutako terminoa da. 2005ean, hain zuzen ere, "Last child in the Woods" liburua (Basoetako azken umea) argitaratu zuen, naturarekin harremanetan ez egotean neska-mutilek jasandako ondorioei buruz hitz egiteko.

Harrezkero, pedagogian eta hezkuntzako psikologian ere ezartzen da.



03 Denon ondasun naturalak

Baso Eskolak eta gure inguruneke natura

Baso Eskolak

3-6 urte arteko neska-mutilentzako eskola hauetan, ez dago ez hormarik ez ikasmahairik. Natura bera ikasgela da, eta aire zabalean ikasten da basoan, ibaian, zelaian edo hondartzan. Gehienetan, etxolatxoak ere badago bertan, arropa aldatzeko edo euri, haize edo hotz handiko egunetan babesteko.



Zein da haien jatorria?

Danimarkan sortu ziren XX. mendeko 50eko hamarkadan, eta, gaur egun, mundu zabalean hedatu da ekimen hori. Alemanian, esaterako, 1.000 baso-eskola baino gehiago daude.

Zein dira haien onurak?

Irudimena eta sormena suspertzen dituzte zentzumenen bidez, lankidetzak eta naturarekiko zein gainerakoekiko errespetua bultzatzen dituzte, trebetasun motorra hobetzen dute, gaixotasunak edukitzeko aukera murrizten dute (lodihasuna, adibidez)... Horra hor egiaztatutako zenbait onura.



Irakaskuntza egokia al da?

Baso Eskolak bizitzaren aro honi egokitutako jarduerak eskaintzen ditu, umeek natur ingurunean bizipenak izatea sustatu nahian, haien garapenean laguntzeko helburuarekin.

Zer metodologia darabiltzate?

Bat-bateko joko askea metodo nagusia da, eta behaketan nahiz saiakuntzan dago oinarrituta. Honelako ekimenetan, laguntzea da hezitzaileen edo begiraleen zeregina. Zenbait adinetako neska-mutilak talde berean daude.

Zer material darabiltzate?

Oro har, naturatik bertatik dator erabilitako materiala, papera edo material lagungarria ere erabili daitekeen arren.



Ba al dago horrelako ikastetxerik Euskadin?

Gaur egun, horrelako hiru ikastetxe daude: bat Arabako **Ozaetan** dago; eta beste biak, Gipuzkoako **Orendainen** zein **Donostian**.

Hiri eta herrietan, izadia parkean



Hiriko parkeak eta lorategiak

Escolatik hurbil dagoen parkeak edo lorategiak ikasgela aire zabalera eramateko aukera eskaintzen digu, jokoak, tailerrak zein bisitaldi gidatuak garatzeko, neska-mutilek ingurune hurbilena balioesten eta errespetatzen ikasteko eta adin goiztiarretatik jasagarritasuna bera sustatzeko.



Ubaiak eta errekek


Inguruko ubaiak gure ingurumenaren osasunaren adierazle ezin hobekak izan daitezke.

Bertan, badago erriberako basoko flora eta fauna ezagutzerik.



Zuhaitzi hurbilak

Escola alboko baso txikiak ingurune egokia dira urtarotako aldaketak antzemateko eta habitataak identifikatzeko.



Zuhaitzaren Eguna

Egutegian horretarako egun zehatzik ez badago ere, udalerriek zenbait jarduera antolatzen dituzte, zuhaitzen garrantzia agerian jartzeko asmoz. Bertan, honako jarduera hauek egiten dira, besteak beste: tokiko zuhaitzak landatzea, neska-mutientzako hitzaldiak zein tailerrak antolatzea...



Eskatu zure udalerrian egingo diren ekimenei buruzko informazioa!

Natura eskolara hurbiltzeko aukerak

Hona hemen natura bera gure ingurunera edo ikastetxera hurbiltzeko zenbait ekimen:

Intsektuentzako hotel-kaxak

Intsektuentzako babeslekua da, eta oso lagungarria da polinizazioa sustatzeko eta gero eta urriagoak diren intsektuak kontserbatzeko. Modu erakargarria da, txikienek euren biologia tokian ezagutu dezaten.

Eraikuntzarako materialak era guztietakoak izan daitezke: naturan bertan dauden materialak (zuhaitz-azalak, banbua edo disko-formako egur-zatiak, adibidez), adreiluak, teilak...



Hegaztientzako habia-kutzak eta janlekuak



Habia-kutxek bizitzeko eta ugaltzeko leku egokia eskaintzen diete hegaztiei. Oso garrantzitsua da kutxak leku seguruan egotea, katuetatik edo beste harrapakari batzuetatik urrun.

Janlekuen bidez, hegaztiak erakarri eta behatu egin ahal izango ditugu, baita bereizten ikasi ere.

Inguruko Hegaztiak proiektua

Proiektua Urdaibai Bird Centerrek kudeatzen du eta, bertan, hegaztientzako janlekuak jartzen dira udazken-neguan, eurentzat garai txarrena dela kontuan hartuta. Horrela, hegaztiak jatera hurbiltzen direnean, badago hurbiletik behatzerik, identifikatzerik eta haien ohiturak zein diren ikasterik.



Anfibioak dituzten urmael txikiak

Planetako espezie antzinakoena badira ere, gero eta gutxiago daude. Oso erraza da urmaela eraikitzea berdegune edo patio batean, eta, era berean, ingurumen-hezkuntzarako tresna ona ere izan daiteke.

Leku egokia aukeratu, gerizpean eta txakur zein katuetatik urrun.

Urmaela industeko orduan, bazterra ez da oso maldatsua izan behar, erraz sartzeko eta irteteko aukera izan dezaten.

Beharrezkoa izanez gero, material iragazgaitza ere erabili, hondoa estaltzeko eta ez lehortzeko.

Urez bete urmaela. Hobe da euriko ura edo ingurune hurbilekoa bada.

Handik gutxira, biziz eta soinuz beteko da!



i

Gehiago jakiteko

Informazio interesgarria

-  Bihotz inguru baso eskola (Donostia).
-  Orendaingo baso eskola.
-  Plisti Plasta.
-  Bosquescuola ekimena.
-  In Natura Eskola
-  Zentzumen guztien bidez ikasi, baso-eskolak.
-  Berdean hezi, bloga. Neska-mutilak naturara hurbiltzeko ideiak.
-  Inguruko Hegaztiak. Urdaibai Bird Center.

-  Soinua eta zarata. Bizkaiko Foru Aldundia.
-  Naturako musika eta osasunerako onurak.
-  Naturako soinuak, kontzentrazioa hobetzeko tresna, SEO BirdLife
-  Soinumapa. Euskal Herriko soinuen mapa.
-  Focus Natura. Natura 2000 Sareko soinuak.

-  Zuhaitza landatzean lortutako onurak.
-  Nola sortu zeure urmaela. Hogarmania.
-  Nola sortu intsektuentzako hotela. Hogarmania.
-  Hegaztientzako janlekuak egiteko 7 modu.
Ecoosfera.

